

GURE ENPRESAREN DESKRIBAPENA

Segur aski, noizbait jantzi baliotsuren bat erosi duzu, eta egunen batean ez duzu aurkitzen, edo kolore desberdinetako galtzerdiak erabiltzen dituzu bi pare berdinak aurkitzen ez dituzulako. Arazo hau konpontzeko, enpresa bat sortu dugu.

Gure proiektuaren bitartez, arropa aurkitzeko modu erraz bat proposatu nahi dugu. Gure produktuak, galtzen zaizkigun arropa pareak, beti kontrolatuta izatea ahalbidetzen diguna. Produktu hau, dimentsio txikiko txip bat da, gure mugikorrarekiko geolokalizatuta egongo dela momenturo. Txip-a, 2 mm arteko lodiera, eta 2 cm-ko luzera izango du, eta tamaina horrekin ezinezkoa izango da txipa nabaritzea arroparen bat jantzita duzunean. Hala ere, txipa jantzietan jarrita egongo da, eta, horretarako, gama altuko eta baxuko enpresarekin (Berska, Nike, Zara, Gucci...) kolaboratuko dugu.

Honez gain, urarekiko erresistentzia izango du, garbigailuan sartu ahal izateko. Produktua, arroparen materialen barrutik joango da, estetikoki arropa ez hondatzeko. Geolokalizazioa, hain espezifiko da, noizbait kendu nahi baduzu, arropan jarri duzun puntu exaktua agertuko zaizu.

Alde batetik, geolokalizazio aurreratuari esker, edozein gailuren bidez ikus daiteke jantzien kokapena. Txipa aktibatzeko, barra-kodeari itsatsita agertzen den kodea eta asmatutako pasahitza sartu behar dira, "Geo-app" aplikazioan lokalizazioa ikusteko. Ondoren, kokapena ikusi nahi duzunean pasahitza sartu beharko duzu.

Bestealde, arropa bat bilatzeaz gain, beste gauza garrantzitsuago batzuetarako ere erabil daitezke. Azken urteetan, desagertze-kasuak handituz joan dira, %70era iritsi arte. Txip honen bidez murriztu nahi dugu, geolokalizazioaren bidez. Pasahitz bera erabil daiteke txipa familiakoekin eta lagunekin lokalizatzeko. Eta horrekin, pertsona bat desagertzen denean, senideek edo lagunek aurki dezakete.

Gure enpresa, 2 modulotan banatzen da: Sede zentrala, eta produktuak fabrikatzen den lekua. Sede zentrolean, produktuari buruko ideiak garatuko dira. Hau, Euskal Herian egongo da kokatuta. Gure fabrika ordea, extremaduran kokatuko dugu, fabriken kostu txikiagatik.

Gure enpresaren ODS-a, 12 zenbakia da; 12. zenbakia da, galtzen duzunean arropa bera ez duzu erosi behar denbora guztian, geolokalizazio bilatu dezakezulako eta baita 17, Inditexekin aliantza egin dugulako, erosterakoan Txipak produktuaren barruan egon daitezten.

Baita ere, emakume eta gizonen arteko etika legeak betetzeko, fabriketan nahiz sede zentralean, gizon-emakume kopuru bera egongo da lanean. Noski, lan postu berdineko pertsonak, soldata berberaren truke egingo dute lan.

Gainera, Geo Chip enpresa, ez da kooperatiba bat izango, hau da, CEO/fundatzaile baten menpe egongo da, eta honen azpitik lankideak, produktuaren inguruan lan egiten, soldata baten trukean.



Gure enpresaren AMIA

Barne Jatorrikoa

Kanpoko Jatorrikoa

AHULEZIAK Gazteak gara eta agian konpainiaren batek ez gaitu serio hartzen	MEHATXUAK Gerra bat hasten bada, salmentak jaitsi egingo dira eta manufakturak
INDARGUNEAK Txip-en prezioa nahiko merkea da. -	AUKERAK Gure enpresa fabrikatzen duen bakarra da, hau da, ez daukagu kompetentzia

Gure enpresako langileok, gaitasun desberdinak dituzte: Alvaro Gonzalez-ek, adimen ikaragarria du, horregatik, marketineko zuzendaria izango da. Nere Isasi-k ordea, oso ona da zenbakien eta kalkuluen arloan. Honen ondorioz, finantza eta administrazio zuzendaria izango da. David, teknologiarekin ondo konpontzen denez gero, teknologia eta informatikako zuzendaria izango da.. Bukatzeko, Beñat Goirigolzarri-ren komunikazio gaitasunaren ondorioz, komunikazio zuzendaria izango da.



